



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Bakioko Txakolingune museoak "sei aste baino arinago" zabalduko ditu bere ateak

Bilbon, 2014ko zezeilaren 6an.

Bakioko Txakolingune museoa “denpora gitxi barru” zabalduko da, Josune Ariztondo Kultura diputatuak Batzar Nagusien aurrean egindako agerraldian gaur egin dauan iragarpena kontuan izanda. “Sei aste baino gitxiago igaro orduko” txakolinari eskinitako museoak bere ateak zabalduko ditu jente guztiarentzat, eta une horretatik aurrera foru erakundeak kudeatuko dau, Bizkaikoa soziedadearen bitartez. Kostaldeko herrian egongo dan zentroak ordutegi desbardin bi izango ditu. Urtariletik bagilera eta irailetik abendura museoa adostutako bisitetarako baino ez da egongo zabalik “eskolentzat eta gizarteko bestelako taldeentzat”; eta udan –garagarrilean eta abuztuan– Aldundiaren hasierako planteamenduaren arabera, ordutegi finkoa eukiko dau: goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Zentroak “145.500 euroko” aurrekontua eukiko dau urtean, eta Aldundiaren aurreikuspenak betetan badira, bost urte barru “ urtean 10.000 pertsona inguruk” bisitauko dabe. Halanda be, lehen urterako aurreikusten jakon bisitari kopurua “4.000 pertsonakoa” izango da.

Irene Soto EH Bilduko bozeroalea pozik agertu da zentroa zabaldu egingo dalako, baina kritikau egin dau museoaren eraikuntzarako “azkeneko esleipenak” “ia milioi bat euroko gain-kostu argia erakusten dauela”. Bere eretziz, hori “arduratzeko modukoa” da. Ganera, Aldundiari aurpegiratu deutso kudeaketa lehiaketa lortu eban enpresek “%0,04ko” aldeagaitik baino ez ebalabazi. Koalizinoko abertzalearen eretziz, horrek esleipenari buruzko “zalantza asko” sortzen ditu. Ariztondok adierazo dauenez, alde txiki hori lehiaketa publikoen gaur egungo egoeraren erakusgarri da, enpresek euren proposamenak “gehiago estutzen” dituelako. “Gero eta ohikoagoa da eskintzen arteko aldeak txikiagoak izatea”, erantzun dau.

Diputatu andreak argitu dau, baita be, Aldundiak ez daukala Bizkaiko museo barriari eukia emoteko lizitazio prozeduran zertan “sartu behar”. “Ez dogu zainketa beharrik egiten”, Bakioko Udalaren zereginaren aurrean. Aldundiaren eginbeharra, bere berbetan, “aholkularitza lanak” egitera mugatu zan. Ariztondok gogoratu dau bere sailak esleipenerako txosten teknikoa idatzi ebalabazi, eta Aldundiaren zereginen artean, zentroarentzako kudeaketa eredu proposidutea be baegoala, Bizkaikoa izeneko museo foru sarearen barruan sartuz, zentroari “eskalako ekonomia” apliketako helburuz. Adierazo dauenez, azken gai horren inguruan beharrean jarraitzen dabe.

Jon Sánchezek, EAJ-PNV taldeko ordezkoko bozeroaleak, EH Bilduren kexak aitatu ditu, eta koalizinoko abertzaleak Aldundiaren lana zikintzeko aurrera daroan “komunikazio estrategiaren” barruan sartu ditu. Bere berbetan, Aldundia, Udaletik bertatik agindutako beharra egitera mugatu da, “txosten teknikoak” idaztera, hain zuzen be. “Ahalegina egiten dabe –Bilduri buruz– edozein argudio garbigailuan sartzeko, eta politikan ez dau edozerk balio”. Batzarkide jeltzalearen ustez, “herritarren aurrean erakusten dogun irudia arduratzeko modukoa da”. “Kontu handiagok ibili behar gara”. Sánchezek. koalizinoko abertzalea foro eta leku okerrean dabilela gogoratu dau. “Ez gagoz Bakioko Udaleko osoko bilkuran”, adierazo dau, proiektua



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

udalerrri horren eskumenen barruan dagoala gogoratu.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK GUGGENHEIM MUSEOAN

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrari erantzunez, Ariztondok, Guggenheim museoaren aurtengo programazinoa errepasau dau. Holan, aldi baterako erakusketak datorren egunean, zezeilaren 13an, hasiko dira, Ernesto Netoren erakusketagaz. Horren ostean, Joko Onori eskinitako atzerabegirakoa, Georges Brakeren lanak jasoten dituana eta Chillida eta Oteitza bezalako euskal egileen formatu handiko lanak eta New Yorkeko Guggenheim museoko beste lan batzuk alkartuko dituan “Gure garaiko artea” erakusketea izango doguz. Diputatu andrearen eretziz, gogoeta prozesu baten ostean eta erakunde publikoen (Eusko Jaurlaritzza eta Foru Aldundia) diru-ekarpen handiagoari esker, lortutako programazino hori “kalidade handikoa” da, eta ez da Estaduko museo garrantzitsuenek eskintzen dabena “baino eskasagoa” izango.

Kultura diputatuak igazko bisitari kopurua be aitatu dau. Bilboko museoak “%8ko” beherakadagaz itxi eban urtea, baina hori bere egunean egindako aurreikuspenen barruan sartzen zan, igazko urtearen ezaugarrietako bat erreferentziazko museo gehienetako bisitari kopuruaren jatsierea izan zalako. Gogoratu dauenez, murrizketa hori turista kopuruaren beherakadaren eta Bizkaiko uriburura heltzeko, beste uri batzuetara iristeko baino “aukera gitxiago” egotearen ondorioa da, bertako garraiobideak ez diralako hain egokiak. Halanda be, eta beste museo batzuek alderatuta, Bilboko museoa beste museo garrantzitsu batzuen gainean egon dala adierazo dau Ariztondok. Holan, Arte Eder Museoak (%35eko jatsierea), Thyssen museoak (-%25), Artiumak (-%18), edo Pradoko (-%15) museoak emaitza txarragoak izan ditue.

PP taldeak, bere aldetik, etorkizunari begira, “arrakastaren gako”, “turismoarentzat erakargarri eta deigarri” diran aldi baterako erakusketetan egongo dala adierazo dau. Horri jagokonez, iraganeko hainbat esperientzia aitatu ditu, “Txinari, motozikletei, Armaniri, Errusiari edo Azteken inperioari” eskinitakoak, adibidez. Arturo Aldecoa ordezkari popularra, lehen mailako beste kultur zentro batzuek trukaketa bultzatzearen eta arte modernoaren ikuspegi “zabalagoa” izatearen alde agertu da, Bilboko Guggenheim museoa ez daiten “arte modernora eta garaikidera mugatu”, “beste” museo batzuetan gertatu dan moduan.

“K” ESPAZIOA

Bizkaiko Batzar Nagusietako Kultura eta Euskerako Batzordeko eguneko gai zerrendako gaien artean, “K” izeneko ekimenaren aurkezpena egoan. Bizkaiko gazteei euskeraz eskinitako sorkuntza espazioa da. Gai horri jagokonez, Ariztondok adierazo dau “K” izango dala Aldundiak gazteriarri eta partaidetzari begira egingo dauen apustua, eta batzarretako taldeek ondo hartu dabe ekimena.

Azaldu dauenez, "K"-k espazio zabala, partaidetzan eta sorkuntzan oinarritua, izan gura dau, gazteek “euren jakin-minak eta Bizkaiaz daukien konpromisoa” erakutsi daien eta, ganera, euskeraz egin daien, teknologia barrien bitartez. Lurraldean dagoan “gazte elebidunen %52,8 horri” dago zuzenduta, eta “euskeraren erabilera erakusteko dago diseinuta, betidanik horretarako egokiak izan diran lekuetan eta baita beste guztietan be”. Kultura diputatuak adierazo dauenez, protagonismoa gazteen esku egongo da, eurak izango diralako euren jakin-minentzako eta arazoentzako konponbideak, proposamenak eta erantzunak bilatuko dituenak,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eta eurak izango diralako konponbideak bideratuko dituenak.

Gazteen presentzia hiru partaidetza eremu handiren bitartez egituratuko da. Horreetako bat Kabia izango da. Bertan, Bizkaiko ehun gazte alkartuko dira, arazoei buruz berba egiteko, eztabaidetako, kritikak egiteko eta, batez be, alternatibak proponiduteko. Beste proposamen bat Kmovie izango da, Bizkaiko ikusmen eta emozino mapa erakutsiko dauen bideo sorkuntza lehiaketea. Saioan, batzarretako taldeek, gazte bizkaitarrek dagoaneko aurkeztu dituen proposamenetako bi ikusi ahal izan ditue. Eta azkeneko eremua K gunea izango da, Bizkaiko gazte komunitatearentzako lekua, sarean, gazte guztien topaleku izango dana, eretxiak, bizipenak edo jakin-minak alkarregaz konpartiduteko.

"POBEÑA-KOBARONEKO MEAGUNEAREN" BABESA

Saioan, batzordeko taldeek aho batez onartu dabe PP taldeak aurkeztutako arauz besteko proposamena. Proposamen horretan eskaerea egiten jako Eusko Jaurlaritzari, “Pobeña-Kobaroneko meagunea” Kultura Ondasun izendatzeko espedientea abiatu daian. Arturo Aldecoa batzordekide popularraren berbetan, Muskizen dagoan meagune horrek aintzatespen hori merezi dau, “Bizkaiaren industria hazkundea azaltzen dauelako eta gure iragana ulertzeko funtsezko elementua dalako”. Juan Oterminek (PSE-EE) gehitu dauenez, leku hori iraganean gertatutako “gizarte arloko eraldaketa handien jatorria” da. EAJ-PNV taldeak eskaerea egin deutso Aldecoari, bere ekimena beste erakunde batzuetara be zabaldu daian. “Eusko Jaurlaritzara zuzenean jo daikezu”, gogoratu deutso Ana Esther Furundarena jeltzaleak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

El museo Txakolingune de Bakio abrirá sus puertas al público en "menos de seis semanas"

Bilbao, a 6 de febrero de 2014.

El museo Txakolingune de Bakio se inaugurará "en breve", según el anuncio hecho hoy por la diputada foral de Cultura, Josune Ariztondo, en su comparecencia en las Juntas Generales. "Será en menos de seis semanas" cuando el museo dedicado al txakoli abra definitivamente sus puertas al público y pase a formar parte, a partir de ese momento, de la red foral de museos Bizkaikoa. El centro de la localidad costera tendrá dos horarios diferentes. Entre los meses de enero y junio, y entre septiembre y diciembre, el museo estará abierto únicamente para visitas concertadas, "escolares y otros colectivos sociales"; y, en verano -los meses de julio y agosto- el planteamiento de la Diputación es que tenga un horario fijo: de 10 a 14 horas y de 16 a 20 horas. El centro contará con un presupuesto anual de "145.500 euros" y la Diputación espera que, tras cinco años de andadura, sea visitado por "unas 10.000 personas", aunque durante su primer año la asistencia prevista será de "4.000".

La portavoz de EH Bildu, Iruñe Soto, se ha alegrado de la apertura del centro, aunque ha criticado que la "adjudicación final" para la construcción del museo "señala un claro sobrecoste de casi un millón de euros", algo que para ella resulta "preocupante". Asimismo, ha reprochado a la Diputación que la empresa que resultó vencedora del concurso de gestión, ganase por una diferencia de "0,04 puntos", lo que para la apoderada de la coalición abertzale ofrece "muchas dudas" sobre la adjudicación. Para Ariztondo, esta diferencia es síntoma del momento actual que viven los concursos públicos, en donde las empresas "ajustan más" sus propuestas. "Cada vez es más habitual que se acorten las distancias entre las ofertas", ha respondido.

La diputada ha aclarado también que la Diputación no tiene por qué "inmiscuirse" en el procedimiento de licitación para dotar de contenido al nuevo museo vizcaíno. "No hacemos labores de vigilancia" a una labor que corresponde al ayuntamiento de Bakio. La función de la Diputación se limitó -según ella- a realizar "labores de asesoramiento". Ariztondo ha recordado que su departamento redactó el informe técnico de adjudicación y que, entre los cometidos forales, se encuentra también el de proponer un modelo de gestión para el centro, incluyéndolo en la red foral de museos Bizkaikoa, con el objetivo de que se aplique al centro una "economía de escala". En esto último, ha advertido que siguen trabajando.

El portavoz suplente del PNV, Jon Sánchez se ha referido a las quejas de EH Bildu y las ha enmarcado en la "estrategia de comunicación" de la coalición abertzale para manchar la labor de la Diputación, institución que -según él- se ha ceñido a realizar la labor encomendada desde el propio ayuntamiento, "unos informes técnicos". "Tratan de introducir -por Bildu- cualquier argumentario en la lavadora y en política no todo vale". Para el juntero jeltzale, es "preocupante la imagen que transmitimos hacia la ciudadanía". "Tenemos que ser más exquisitos". Sánchez ha recordado que la coalición abertzale se equivoca de foro. "No estamos en el pleno del ayuntamiento de Bakio", ha dicho, coincidiendo con la diputada al apuntar que el proyecto es competencia de este municipio.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EXPOSICIONES TEMPORALES EN EL GUGGENHEIM

Por otro lado, en respuesta al grupo juntero Popular Vizcaíno, Ariztondo ha realizado un repaso de la programación del museo Guggenheim para este año. Así, las exposiciones temporales arrancarán el próximo jueves, 13 de febrero, con la apertura de la exposición de Ernesto Neto. A ésta, le seguirán la retrospectiva dedicada a Joko Ono, las obras de Georges Braque y la muestra “El arte de nuestro tiempo”, que reunirá obras de gran formato de autores vascos como Chillida y Oteiza, con otras obras “maestras” del Guggenheim de Nueva York. La diputada cree que esta programación, fruto de un proceso de reflexión y del mayor aporte económico por parte de las instituciones públicas (Gobierno Vasco y Diputación), puede considerarse de “gran calidad” y “no va a desmerecer” de la ofertada por los más importantes centros museísticos del Estado.

La diputada de Cultura se ha referido también a la cifra de visitantes del año pasado. El museo bilbaíno cerró con un descenso del “8%” que estaba en las previsiones que se hicieron en su momento para un año que estuvo marcado por un descenso generalizado de las cifras de asistencia a la mayoría de los centros museísticos de referencia. Ha recordado que esta reducción es consecuencia del descenso en la entrada de turistas y de las “menores posibilidades” de llegar a la capital vizcaína, en cuanto a medios de transporte, en relación a otras ciudades. Así y todo, en la comparativa con otros centros, Ariztondo ha advertido que el museo bilbaíno sale ganando respecto a museos como el Bellas Artes (con un descenso del 35%), el Thyssen (-25%), el Artium (-18%) o el Prado (-15%).

Por su parte, el PP ha sostenido que, de cara al futuro, la “clave del éxito” estará en aquellas exposiciones temporales que suponen un “acicate y un reclamo para el turismo”. En esta línea, ha citado experiencias pasadas como las exposiciones dedicadas “a China, a las motocicletas, a Armani, a Rusia o al imperio azteca”. En este sentido, el representante popular Arturo Aldecoa ha abogado por impulsar el intercambio con otros centros culturales de primer nivel y por tener una visión “más amplia” del arte moderno, para que el Guggenheim bilbaíno “no se quede encasillado en el arte moderno y contemporáneo”, como ha sucedido en “otros” museos.

ESPACIO “K”

Entre los asuntos del orden del día de la Comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales de Bizkaia, se encontraba la presentación en la Cámara Vizcaína de la iniciativa denominada “K”, un espacio creativo y en euskera para los jóvenes vizcaínos abierto en diciembre. En este sentido, Ariztondo ha indicado que “K” será la apuesta de la Diputación en materia de juventud y participación, una iniciativa que ha sido bien acogida por los grupos junteros.

Según ha explicado, “K” pretende ser un espacio abierto, participativo y creativo donde los jóvenes reflejen sus “inquietudes y su compromiso con Bizkaia” y que, además, lo hagan en euskera y mediante las nuevas tecnologías. Va dirigido a ese “52,8% de jóvenes bilingües” existentes en el territorio y está concebido para que se “visualice el uso del euskera, tanto en espacios genuinos, como en otros”. La diputada de Cultura ha indicado que el protagonismo va a recaer en los jóvenes, que serán agentes activos en la búsqueda de soluciones, de propuestas y respuestas a sus inquietudes y problemas, así como el canalizador de sus soluciones.

La presencia de los jóvenes se articulará mediante tres grandes ámbitos de participación, uno de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ellos Kabia , un foro en el que cien jóvenes de Bizkaia se juntarán para dialogar, debatir, criticar y, sobre todo, proponer alternativas a los problemas. Otra de las propuestas es Kmovie , un concurso de vídeo creativo que servirá para mostrar el mapa visual y emocional de Bizkaia. En la sesión los grupos junteros han podido visualizar dos de las propuestas que han sido presentadas ya por jóvenes vizcaínos. Y, por último, K gunea es un lugar en la red para la comunidad juvenil de Bizkaia donde la juventud se pueda encontrar e intercambiar opiniones, vivencias o inquietudes.

PROTECCIÓN DEL "COTO MINERO DE POBEÑA-KOBARON"

En la sesión, la comisión ha aprobado por unanimidad una proposición no de norma presentada por el PP mediante la que se solicita al Gobierno vasco que inicie el expediente de protección para la declaración como Bien Cultural del “coto minero Pobeña-Kobaron”. Según el apoderado popular Arturo Aldecoa, este espacio minero situado en Muskiz, merece este reconocimiento porque “explica el auge industrial de Bizkaia y es un elemento clave para comprender nuestro pasado”, a lo que Juan Otermin (PSE-EE) ha añadido que este emplazamiento es el “origen de grandes transformaciones sociales” ocurridas en el pasado. El PNV ha pedido a Aldecoa que extienda su iniciativa a otras instituciones. “Puede dirigirse directamente al Gobierno Vasco”, le ha recordado la jeltzale Ana Esther Furundarena.